



ORIOK OUDALA

Euskaraz
bizi-bizi

AKTA

Udalbatzarraren ohiko bilkura

EGUNA: 2020ko urtarrilaren 29a, asteazkena

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa, udaletxean

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 19:30 **BUKATZEKO ORDUA:** 20:00

BERTARATUAK:

Alkatea

Anuska Esnal Oriden.

Zinegotziak

Ainara Munduate Iguaran, Xabier Ibarguren Azkue, Beñat Solaberrieta Albizu, Bakarne Oriden Albeniz, Bittor Andres Alkorta, Lourdes Salsamendi Goñi, Andoni Torres Fernandez, Jon Basurko Sarasua, Amaia Gozategi Urbieto, Jose Javier Gomez de Segura Arce, Ana Prieto Merchan eta Jose Angel Iparragirre Alberdi.

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi.

Gai-zerrenda

- 1.- Irakurri eta onartzea, egoki bada, udalbatzarraren 2019ko abenduaren 26ko ohiko bilkurako aktaren zirriborroa.



- 2.- Onartzea, egoki bada, udal-langileen ordainsarien 2020rako igoera eta kargua dedikazio osoarekin edo partzialarekin betetzen duten udal-korporaziokideen ordainsarien igoera.
- 3.- Onartzea, egoki bada, Orioko Udalaren eta Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza Partzuergoaren artean izenpetu beharreko hitzarmena, biztanleen udal-errolako datuen egiaztapenari buruzkoa.
- 4.- Onartzea, egoki bada, Udalaren aurrekontu propioari dagokion 1/2020 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteak; espedienteak kreditu gehigarrien modalitatean egin dago.
- 5.- Eskariak eta galderak.

Esan-eginak

1.- IRAKURRI ETA ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALBATZARRAREN 2019KO ABENDUAREN 26KO OHIKO BILKURAKO AKTAREN ZIRRIBORROA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, inork inolako oharrik egiten ez duenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA udalbatzarrak 2019ko abenduaren 26an egindako ohiko bilkurako akta.

2.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDAL-LANGILEEN ORDAINSARIEN 2020RAKO IGOERA ETA KARGUA DEDIKAZIO OSOAREKIN EDO PARTZIALAREKIN BETETZEN DUTEN UDAL-KORPORAZIOKIDEEN ORDAINSARIEN IGOERA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Igoera horren oinarrian sektore publikoko ordainsarien alorrean premiazko neurriak onartzen dituen urtarilaren 21eko 2/2020 Legegintzako Errege Dekretuaren 3.2 artikuluan ezarritakoa dago.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Ogasuna eta Pertsonala Batzorde Informatzaileak 2020ko urtarilaren 27an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- ONARTZEA udal-langileen ordainsariaren igoera 2020rako eta, baita ere, kargua dedikazio osoarekin edo partzialarekin betetzen duten udal-korporaziokideen igoera. Igoera honela aplikatuko da:



- %2,00 igoko dira 2019ko abenduaren 31n indarrean dauden soldatak, 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera.
- Horrez gain, 2019ko Barne Produktu Gordina (BPG) prezio konstanteetan %2,5era iristen bada, edo ehuneko hori gainditzen balu, ordainsariak beste %1,00 igoko dira 2020ko uztailaren 1etik aurrera. BPGa %2,5 baino gutxiago handitzen bada, ordainsarien gehikuntza modu proportzionalen aplikatuko da, era honetara:
 - 2,1eko BPGa: %2,20
 - 2,2eko BPGa: %2,40
 - 2,3eko BPGa: %2,60
 - 2,4ko BPGa: %2,80

3.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDALAREN ETA GIPUZKOAKO GARRAIOAREN LURRALDE AGINTARITZA PARTZUERGOAREN ARTEAN IZENPETU BEHARREKO HITZARMENA, BIZTANLEEN UDAL-ERROLDAKO DATUEN EGIAZTAPENARI BURUZKOA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Ogasuna eta Pertsonala Batzorde Informatzaileak 2020ko urtarrilaren 27an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- ONARTZEA Orioko Udalaren eta Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza Partzuergoaren artean izenpetu beharreko hitzarmena, biztanleen udal-errolako datuen egiaztapenari buruzkoa.

2.- AHALMENA EMATEA alkateari hitzarmen hori sinatzeko, Orioko Udalaren izenean.

4.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALAREN AURREKONTU PROPIOARI DAGOKION 1/2020 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEA; ESPEDIENTEA KREDITU GEHIGARRIEN MODALITATEAN EGINA DAGO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 1/2020 espedientea kreditu gehigarrien modalitatean egina dago eta 568.045 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Ogasuna eta Pertsonala Batzorde Informatzaileak 2020ko urtarrilaren 27an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:



1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Udalaren 2020ko aurrekontuari dagokion 1/2020 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditu gehigarrien modalitatean egina dago eta 568.045 euroko kopurua du.

2.- Indarrean dagoen araudia betez, **JENDAURREAN JARTZEA** kreditua aldatzeko espediente hori, arau hauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza–Kontu-hartzailletza

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

e) Aurkezteko bulegoa: Udalaren sarrera-erregistro nagusian, bulego-orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

f) Zein organoren aurrean: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea amaitu eta inolako erreklamazio edo oharrik jaso ez bada, kreditua aldatzeko espedientea onartutzat joko da behin betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

Emandako botoa azaltzeko, Beñat Solaberrieta zinegotziak hartzen du hitza, Ingurumen, Obra eta Zerbitzuetako Batzordeko buru den aldetik, eta adierazten du kredituak aldatzeko espediente honetan nabarmendu nahi dituela «Mendibeltz» futbol eta softbol-zelaian egingo diren udal-inbertsioak, belar artifizia berritzeko (350.950 euro) eta argiteriarako (65.745 euro). Inbertsio horien bidez, erantzun egokia ematen zaio 2015-16 denboralditik datorren erreibindikazio aspaldiko bati. Kontuan hartuta 450 kirolari inguruk erabiltzen duela instalazioa, garrantzizkoa iruditzen zaio Udalak egingo duen ahalegina horien beharrei erantzuna emateko.

Ondoren, Ainara Munduate zinegotziak hartzen du hitza, Hirigintza Batzordeko buru den aldetik, eta adierazten du kredituak aldatzeko espediente honetan nabarmendu nahi duela surfeko lokalean egingo diren udal-inbertsioak, ur beroa lortzeko bi punpa instalatzeko (5.600 euro). Surfeko lokalak gero eta erabiltzaile gehiago ditu eta, inbertsio horren bidez, energia berriztagarria izango du eraikinak eta, ondorioz, energia-kontsumoan aurreztuko da.

Bakarne Oriden zinegotziak hartzen du hitza, Hezkuntza Batzordeko buru den aldetik, eta adierazten du kredituak aldatzeko espediente honetan nabarmendu nahi duela



Haurreskolaren eraikinean egingo diren udal-inbertsioak, segurtasuna hobetzeko larrialdi-eskailerak eraikitzeko (145.750 euro).

Lourdes Salsamendi zinegotziak hartzen du hitza, EAJren izenean, eta adierazten du azken hiru hilabeteetan ur berorik gabe daudela Arraunetxen. Erabiltzaile ugari dituen udal kirol-instalazioa denez, bere talde politikoak uste du lehenbailehen konpondu behar dela arazo hori eta Udalak erantzun egokia eman behar diela Arraunetxeko erabiltzaileei.

Jose Angel Iparragirre zinegotziak hartzen du hitza, Kirol Batzordeko buru den aldetik, Lourdes Salsamendik esandakoari erantzuteko, eta adierazten du ez dela egia Arraunetxeko udal-eraikina ur berorik gabe egon denik azken hiru hilabeteetan. Egia da arazo puntualak izan direla eta ahalik eta lasterren konpondu direla, betiere ur beroa instalatu zuen enpresaren eta mantentzeaz arduratzen den enpresaren arteko koordinazio-arazoak gainditu ondoren.

Alkateak hartzen du hitza eta adierazten du merezi duela nabarmentzea Udalaren kirol- eta hezkuntza-instalazioetan aurreikusitako eta gaur aho batez onartutako udal-inbertsioak, guztira 568.045 eurokoak. Adierazten du, baita ere, Arraunetxen ur beroaren instalazioarekin izandako arazo puntual batek ezin duela lorpen hori ilundu. Azkenik, adierazten du, Jose Angel Iparragirre zinegotziak galdararen gaiari buruz esan duen bezala, enpresa instalatzailea eta mantentzearen ardura daukana bi desberdin direla.

Azkenik, Ana Priede zinegotziak (PSE-EE-PSOE) hartzen du hitza eta adierazten du, Orioko Arraunketa Elkarteak Arraunetxeko udal-eraikineko ur beroaren instalazioan zeuden arazoen berri eman zuenean, Orioko Udala lehenengo minututik saiatu zela arazo horiek konpontzen eta ahal bezain azkar konpondu direla.

5.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Xabier Iburguren zinegotziak hartzen du hitza, eta gogorarazten du biharko egunean greba orokorra egingo dela lan, pentsio eta bizitza duinaren alde, eta Orioko udalbatzarrak, 2019ko abenduaren 26an egindako ohiko bilkuran, ebazpen-proposamen bat onartu zuela, EH BILDU eta PSE-EE-PSOE talde politikoen aldeko botoekin, greba orokorra babesteko eta Euskal Herriko eskubide sozialen Kartaren kideen, pentsiodunen eta feministen erreibindikazioekin bat egiteko: 1.080 euroko pentsio duina, etxebizitzaren alokairu soziala eta mendekotasun-egoeran bizi diren pertsonen babesa. Adierazten du, baita ere, azpimarratu behar dela Orioko biztanleriaren %20 pobrezia-egoeran dagoela, eta, beraz, behar-beharrezkoa dela pentsio duinak eta pentsio-sistema publikoa eskatzea.

Lourdes Salsamendi zinegotziak hartzen du hitza, EAJren izenean, eta adierazten du bere talde politikoak abstentzio-botoa eman zuela joan den abenduaren 26ko udalbatzarrean, mozio alternatibo bat aurkeztu zutelako, gaia ezohiko udalbatzar



ORIOKO UDALA



batean eztabaidatzeko, urtarrilean. Adierazten du, azkenik, Orioko EAJk beti babestu dituela pentsio eta baldintza duinak.

Ez zen eskari eta galdera gehiagorik izan.

Horrenbestez, udalbatzarrera bertaratutako pertsonetako inork hitza hartu ez duenez, alkateak eskerrak ematen dizkie etorritako guztiei eta bilkurari amaiera ematen dio. Erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,